

# EGIPTO



Begirada erromantíkoa  
La mirada romántica

ERAKUSKETA - EXPOSICIÓN

2011ko ekainak 24 - azaroak 20 / 24 junio- 20 noviembre 2011

Proiektu hau Oiasso Erromatar Museoak Gipuzkoako Foru Aldundiaren babesarekin eta Santiago Entrena eta José María Ortuondoren lankidetzarekin gauzatu du. Proyecto producido por el Museo Romano Oiasso con el apoyo de la Diputación Foral de Gipuzkoa y la colaboración de Santiago Entrena y José María Ortuondo.

Testuak Textos: Santiago Entrena, Jose María Ortuondo  
Proiektuaren koordinazioa Coordinación del Proyecto: Cristina Aguirre, María José Noain  
Erakusketaren diseinua Diseño de la exposición: Kó Gestión Cultural

Esker onak Agradecimientos:  
Euskal Museoa. Bilbao. Museo Vasco  
San Telmo Museoa. Donostia - San Sebastián

# EGIPTO

## Begirada erromantikoa

XVIII. eta XIX. mendeetan, esplorazio bidaien gorakadarekin, europarrek berriro deskubritu zuten Egiptoko faraoien antzinako zibilizazioa. Esplorazio bidaia haiei eta egiptologiaren aitzindarien lanari buruzko hainbat testigantza aurkezten dira erakusketa honetan: Niloko herrialdearen paisaiak, monumentuak eta ohiturak erakusten dizkiguten grabatuak, liburuak eta antzinako argazkiak; zeinek, aldi berean, lehenengo bidaiarien artean beroriek sortzen zituzten harridura jasota utzi baitzuten. Begirada erromantiko horren ondoan, Antzinako Egiptoko arkeologia-pieza multzo interesgarri bat erakusten da, eta horrek ezohiko zibilizazio honen hileta munduaren mitologian eta ikusmoldean sartzen ahalbidetzen digu.

“Egipto, begirada erromantikoa” Santiago Entrenaren eta José María Ortuondoren ekimena da, eta haien bildumek osatzen dute erakusketaren nukleoa. Horiez gainera, Bilboko Euskal Museoa eta Donostiako San Telmo Museoa erakusketarako objektuak ere gehitu dira.

## La mirada romántica

Durante los siglos XVIII y XIX, con el auge de los viajes de exploración, los europeos redescubrieron la antigua civilización de los faraones de Egipto. En esta exposición se presentan una serie de testimonios de aquellos viajes de exploración y del trabajo de los pioneros de la egiptología: grabados, libros y fotografías antiguas que nos descubren paisajes, monumentos y costumbres del país del Nilo y, al mismo tiempo, dejan constancia del asombro que éstos producían entre los primeros viajeros. Junto a esta mirada romántica, se muestra un interesante conjunto de piezas arqueológicas del Antiguo Egipto que nos permite adentrarnos en la mitología y la concepción del mundo funerario de esta extraordinaria civilización.

“Egipto, la mirada romántica” es una iniciativa de Santiago Entrena y José María Ortuondo, cuyas colecciones forman el núcleo de la exposición, a las que se han añadido los objetos cedidos por el Museo Vasco de Bilbao y el Museo San Telmo de Donostia-San Sebastián.




TABLEAU PRÉPARE PAR LE PEUPE DE LA SAHARA DES HERRIS DANS LE S. TERRAIN DES HERRIS. C. EST. 25. PEUPE DE C'UNE DES SAHARA DE NERE TERRAIN.



## LEHENENGO BIDAIARIAK

Halicarnasoko Herodoto historialari grekoa izan zen Egipto bisitatu zuen lehenengo "turista" K. a. V. mendean erdialdean. Idatzizko deskripzio bat utzi zuen herrialdeari buruz. Irakurtzeko lilurgarria; gertaeren, fabulen, eszeptizismoaren eta sineskortasunaren nahasketa bat delarik. Grekoek eta erromatarrek integratu zituzten lur horiek beren jabetzetan. Geroago, faraoien Egipto hura pixkanaka baztertuta geratu zen, harik eta Errenazimentutik aurrera, Mediterraneoako hegoaldeko kostaldeetara joaten ziren mendebaldeko bidaiarien kopurua handituz joan eta XVIII. mendeko esplotazio geografikoak egin arte. Hala ere, faraoien antzinako kultura berriro deskubritzea ahalbidetu zuen 1798 eta 1801 artean egin zen Napoleonen espedizioak.



## LOS PRIMEROS VIAJEROS

Fue el historiador griego Heródoto de Halicarnaso el primer "turista" que visitó Egipto, a mediados del s. V a. C., dejando por escrito una descripción del país de fascinante lectura, mezcla de hechos, fábulas, escepticismo y credulidad. Griegos y romanos integraron en sus dominios estas tierras. Con posterioridad, el Egipto de los faraones quedó poco a poco relegado al olvido hasta que, a partir del Renacimiento, el número de viajeros occidentales que frecuentaban las costas meridionales del Mediterráneo fue aumentando hasta las primeras exploraciones geográficas del s. XVIII. Sin embargo, fue la expedición de Napoleón, que tuvo lugar entre 1798 y 1801, la que permitió el auténtico redescubrimiento de la antigua cultura de los faraones.





## NAPOLEONEN ESPEDIZIOA

1798an Egipto konkistatzeko egin zuen espedizio militarrean, Napoleonekin batera, 150 ikerlarik baino gehiagok parte hartu zuten, eta Ekialdeko Zientzien eta Arteen Batzordea eratu zuten. Gai askotako adituak ziren eta "les savants" (jakintsuak) ezizenaz ezagunak ziren. Herraldean zehar ibili ziren monumentuen marrazkiak eginez, monumentuak katalogatuz eta erregistratuz. Lana egundoko argitalpen-lan batean jaso zen: "La Description de L'Égypte". Parisen argitaratu zen 1809 eta 1828 artean. Bederatzi testu liburukik eta hamar xafra-liburukik osatzen zuten, eta 3.000 marrazki baino gehiago zituen. Lana Egiptori buruzko lehenengo azterketa izan zen, irizpide zientifikoekin antolatatu zen eta gaur egun ere erreferentzia-lan bat da. Gainera, arte egipziarra Europan hedatzea ekarri zuen, eta sekulako interes handia piztu zuen herrialdeaz eta bere lehenaldiaz.

## LA EXPEDICIÓN DE NAPOLEÓN

En su expedición militar de conquista de Egipto en 1798, Napoleón se hizo acompañar de más de 150 estudiosos que conformaron la Comisión de las Ciencias y las Artes de Oriente. Estos expertos en distintas materias, apodados "les savants" (los sabios), recorrieron el país dibujando, catalogando y registrando todos sus monumentos. El trabajo se recogió en una impresionante obra editorial, "La Description de L'Égypte", impresa en París entre 1809 y 1828, que comprendía nueve volúmenes de texto y otros diez de planchas con más de 3.000 dibujos. La obra representó el primer estudio sobre Egipto organizado con criterios científicos, siendo, incluso hoy en día, obra de referencia. Además, supuso la difusión del arte egipcio en Europa y suscitó un enorme interés por el país y su fabuloso pasado.



## ORIENTALISMOA

XVIII. mendean Ekialdeko mundua olio-pinturetan eta akuareletan islatzea modan jarri zen hango arkitekturaren, paisaiaren eta ohituren bitartez. XIX. mendearen erdialdean tematika hori gero eta hedatuagoa zen, herrialde horietarako irisgarritasunarekin bat etorriz. Herri haien artean, Egiptok erakargarritasun handia sortu zuen. Lan horietan ohikoak izaten ziren hareneko eszenak, basamortuko paisaiak edo ehiza eszenak; haietan ekialdeko moda exotikoarekiko interesa nabarmentzen zen. Orientalismo izeneko korronte artistiko horretako egile nabarmenen artean, besteak beste, hauek ziren: Jean-Léon Gérôme, Alexandre-Gabriel Decamps, Horace Vernet, Jean-André Rixens eta Frederic Goodall. Haietako batzuek Antzinaroko gai historiko batzuk ere landu zituzten; hala nola, Gérômek berak edo Sir Lawrence Alma Tadema holandarrak; zeina, nagusiki, mundu grekolatinoan murgildu baitzen.

## EL ORIENTALISMO

Durante el s. XVIII se puso de moda entre los artistas reflejar en sus óleos y acuarelas el mundo de Oriente, a través de su arquitectura, paisaje y costumbres. A mediados del s. XIX, la temática era cada vez más popular, coincidiendo con la accesibilidad a estos países, entre los que Egipto suscitó una gran atracción. Eran habituales en estas obras las escenas de harén, paisajes desérticos o escenas de caza, en las que se percibía el interés por la exótica moda oriental. Entre los autores destacados de esta corriente artística, que recibió el nombre de Orientalismo, se encontraban, entre otros, Jean-Léon Gérôme, Alexandre-Gabriel Decamps, Horace Vernet, Jean-André Rixens o Frederic Goodall. Algunos de ellos trabajaron también temas históricos de la Antigüedad como el propio Gérôme o el holandés Sir Lawrence Alma Tadema, que dirigió su mirada principalmente al mundo grecolatino.

## FARAOIEN GARAIKO ANTZINAKO GAUZAK ETA LEHENENGO EGIPTOLOGOAK

“Description de l’Egypte” obrak eta Vivant Denon Napoleonen espedizioko jakintsuetako baten “Voyage” obraren hedapenak Egiptoko antzinako gauzen bildumak egitera bultzatu zuten. Bernardino Drovetti Frantziak Egipton zuen kontsulak egindako lehen indusketetatik —horren helburua bilduma horietarako arte-objektuak antzematea eta harrapatzea zen—, Europako beste herrialde batzuek beren kontsulei zeregin bera enkargatu zieten. Horrela, herrialdeko ondare arkeologikoaren lapurretari ekin zitzaion eta, aldi berean, ordezkari diplomatikoek eta beren agenteek “kontsulen borroka” izenez ezagutzen zen horretan parte hartu zuten. Drovetti-rekin batera, Henry Salt kontsul ingelesa nabarmendu zen. Honek Giovanni Battista Belzoni paduarra eduki zuen bere agenteen artean; hau Salt zerbitzatu ondoren, bere kaxa aritu zen antzinako objektu egipziarren irabaz-negozioan.

## LA BÚSQUEDA DE ANTIGÜEDADES FARAÓNICAS Y LOS PRIMEROS EGIPTÓLOGOS

La divulgación de “Description de l’Egypte” y de la obra “Voyage” de Vivant Denon, uno de los “savants” de la expedición napoleónica, impulsó la creación de colecciones de antigüedades egipcias. A partir de las primeras excavaciones de Bernardino Drovetti, cónsul de Francia en Egipto, cuyo objetivo era la caza y captura de objetos de arte para dichas colecciones, otras naciones europeas encargaron a sus cónsules la misma tarea. Se inició así una depredación del patrimonio arqueológico del país a la vez que los representantes diplomáticos y sus agentes combatían en lo que sería definida como “la guerra de los cónsules”. Junto con Drovetti, destacó Henry Salt, cónsul inglés, que contó entre sus agentes con el paduano G. B. Belzoni; éste, tras servir a Salt, se dedicó por su cuenta al lucrativo negocio de las antigüedades egipcias.




## IDAZKERA HIEROGLIFIKOAREN DESZIFRATZEA

1822an, Jean François Champollion-ek idazkera hieroglifikoa deszifratzea lortu zuen, modu horretan monumentu asko estaltzen zituzten eta papiroan idatzitako testuen edukietara iritsi ahal izan zen. Thomas Young-en lanekin jarraituz, Champollion-ek pieza giltzarri bat erabili ahal izan zuen deszifratze prozesuan, Rosetta harria, zeinak testu bera grezieran, idazkera demotikoa eta idazkuntza hieroglifikoan eskaintzen baitzuen. Hiru idazkerak alderatuz, eta batez ere Ptolomeo eta Kleopatra errege helenistikoaren izen propioak ardatz hartuta, “kartutxo” izeneko obalo batzuetan azpimarratuak zeudenak, behar zuen giltza lortu zuen horien transkripzioarako eta itzulpenerako.

## EL DESCIFRAMIENTO DE LA ESCRITURA JERoglÍFICA

En 1822 Jean François Champollion consiguió descifrar la escritura jeroglífica, posibilitando el acceso a los contenidos de los textos que cubrían infinidad de monumentos y documentos en papiro. Continuando los trabajos de Thomas Young, Champollion pudo utilizar una pieza clave en el proceso de desciframiento, la piedra Rosetta, que ofrecía el mismo texto en griego, escritura demótica y escritura jeroglífica. Comparando las tres escrituras y, sobre todo, centrándose en los nombres propios de los monarcas helenísticos Ptolomeo y Cleopatra, destacados en unos óvalos denominados “cartuchos”, obtuvo la clave necesaria para su transcripción y traducción.



## TUTANKHAMONEN HILOBIA

Tutankhamonen hilobiaren deskubrimendua Erregeen Haraneko nekropoli tebanoan Arkeologiaren Historiaren aurkikuntza ospetsuenetako bat izan zen. Gaston Maspero edo Flinders Petrie bezalako prestakuntza akademikoa zuten lehen egiptologoen jarraitzailea zen Sir Howard Carter arkeologo britainiarra izan zen 1922an, XVIII. dinastiako faraoi horren hilobia aurkitu zuena. Faraoaia 19 urte besterik ez zituela hil zen. Aurkikuntza oso garrantzitsua izan zen, hileta ganbara ia ukitu gabe zegoelako eta haren barruan hileta-hornidura osoa gordeta zegoelako, espoliatzaileengandik salbu. Espedizioaren mezenas izan zen Lord Carnavon-en heriotzaren ondoren, hilobia irekitzearekin zerikusia zuten beste pertsonen heriotza gertatu zen, eta horrek hasiera eman zion faraoiaren madarikazioari buruzko kondairari.

## LA TUMBA DE TUTANKHAMON

El descubrimiento de la tumba de Tutankhamon, en la necrópolis tebana del Valle de los Reyes, se convirtió en uno de los hallazgos más sonados de la Historia de la Arqueología. Fue Sir Howard Carter, arqueólogo británico seguidor de los primeros egiptólogos de formación académica y metodología científica como Gaston Maspero o Flinders Petrie, quien encontró en 1922 la tumba de este faraón de la XVIII dinastía que murió con tan sólo 19 años. La trascendencia del hallazgo se debió al hecho de que la cámara funeraria estaba prácticamente intacta y conservaba en su interior el ajuar funerario completo, a salvo de los expoliadores. La muerte de Lord Carnavon, mecenaz de la expedición, a la que siguieron las de varias personas relacionadas con la apertura de la tumba, inició la leyenda de la maldición del faraón.



## TURISMOAREN SORRERA

1869an Suezeko Kanala ireki zen, eta urte berean Thomas Cook bidaia agentzia ireki zen; horrek Egiptora bidaiatzea errazagoa izatea ekarri zuen, eta egonaldiairen baldintzak zein garrarioa era nabarmenean hobetu ziren. Cook izan zen historiako lehen bidaia antolatuen sortzailea eta, gainera, Egiptori buruzko lehenengo gida turistikoa argitaratu zuen. Tutankhamonen hilobia deskubritzeak turismoarekiko sukarra eta Egiptora bidaiatzeko grina eta gogo eutsiezina ekarri zuen, eta luxuzko hotelak ireki ziren hiri garrantzitsuenetan. Kontu egipziarrekin zegoen moda horretatik garai hartako bi literatur erreferentzian geratu ziren testigantzak, hala nola Agatha Christie-ren “Heriotza Nilo ibaian”, zeina arkeologo batekin ezkondua baitzegoen, eta Amelia B. Edwards-en “Mila milia Nilotik gora”.

## EL NACIMIENTO DEL TURISMO

La apertura del Canal de Suez en 1869 y la creación de la agencia de viajes Thomas Cook en ese mismo año contribuyeron a facilitar los viajes a Egipto, mejorando notablemente las condiciones de la estancia y los desplazamientos. Cook, creador de los primeros viajes organizados de la historia, publicó además la primera guía turística sobre Egipto. El descubrimiento de la tumba de Tutankhamon terminó por desatar la fiebre turística y el deseo irrefrenable de visitar Egipto, en cuyas ciudades principales se abrieron hoteles de lujo. De esta moda por lo egipcio quedan testimonios en dos referencias literarias de la época como son “Muerte en el Nilo”, de Agatha Christie, casada con un arqueólogo, y “Mil millas Nilo arriba” de Amelia B. Edwards.

## ARGAZKILARITZAREN AITZINDARIAK EGIPTON

Argazkilaritzaren teknika iraultzailea sartu zen XIX. mendearen erdialdetik aurrera, eta horri esker paisaiak, jendea eta monumentu egipziarrak fideltasunez erretratatu ahal izan ziren. Testigantza ugari daukagu argazkiaren lehen garai horietatik, XIX. mendearen bigarren erdialdean eta XX. mendearen hasieran hartutako eszena egipziarrekin; pasa den garai bat geure begieze ikusteko aukera ematen digute, zeina argazki plaketan atzemandako geratu baitzen.

## PIONEROS DE LA FOTOGRAFÍA EN EGIPTO

La introducción de la revolucionaria técnica fotográfica, a partir de mediados del siglo XIX, permitió retratar con fidelidad los paisajes, las gentes y los monumentos egipcios. Contamos con numerosos testimonios de estos primeros tiempos de la fotografía, con escenas egipcias captadas durante la segunda mitad del XIX y principios del XX; nos ofrecen la oportunidad de ver con nuestros propios ojos una época pasada que quedó atrapada en las placas fotográficas.



## HILETAREN INGURUKO MUNDUA

Faraioen garaiko arte egipziarraren zati handi bat erlijioarekin eta heriotzaren ondorengo bizitza baten sinesmenarekin lotuta zegoen. Ekonomia bitarteko nahikoak zituzten egipziarrek metodikoki prestatzen zuten beren hilobia, baita bertako hileta hornidura ere. Objekturik nabarmenena gorpua momifikatua zetzan hilkutxa zen. Normalean egurrez fabrikatzen ziren eta apaingarri maila desberdinak izaten zituzten; haien artean, zenduaren aurpegia erakusten zuen maskara nabarmentzen zen. Hilobietan azpimarratzekoak ziren beste objektu batzuk ushebti-ak ziren, hileta-estatuatxo horien helburua beste munduan nekazaritza zeregina egitea zen; beste mundua paradisu bat bezalakoa irudikatzen zuten, bizitza errearen antzera.

Momifikatzeko prozesuan gorpua lehortu egiten zen eta organo batzuk erauzten ziren; organo horiek ontzi kanopoetan kontserbatzen ziren, eta Horusen Lau Seme-Alaben babesaren pean jartzen ziren. Bihotza, nortasunaren eta oroitzapenaren egoitza, gorpuan geratzen zen. Hildakoa babesten zuten benden artean kutun babesgariak sartzen zituzten, haien artean kakalardo hegaldunak nabarmentzen zirela.



## EL MUNDO FUNERARIO

Gran parte del arte egipcio faraónico estaba relacionado con la religión y la creencia en una vida después de la muerte. Los egipcios con recursos económicos suficientes preparaban de forma metódica su tumba y el ajuar funerario de la misma. El objeto más destacable era el ataúd en el que reposaba el cuerpo momificado. Habitualmente se fabricaban en madera, y presentaban distintos grados de decoración, destacando en ellos la máscara que mostraba el rostro del difunto. Otros objetos muy destacables en las tumbas eran los ushebti, estatuillas funerarias destinadas a desempeñar las tareas agrícolas en el otro mundo, idealizado como un paraíso a semejanza de la vida real.

En el proceso de momificación, el cuerpo era desecado y se extraían varios órganos que se conservaban en unos recipientes denominados vasos canopos, puestos bajo la protección de los Cuatro Hijos de Horus. El corazón, sede de la personalidad y la memoria, permanecía en el cuerpo. Entre las vendas que protegían al difunto se incorporaban amuletos protectores entre los que destacaban los escarabeos (escarabajos) alados.



## MITOLOGIA

Politeísmo egipziarrean jainko ugari zeuden, haien artean Amon Tebas hiriko jainko zaindaria, zeina Ra jainkoarekin identifikatu baitzen eta panteoiko jainko gorenaren mailara igo baitzen. Sortze mito eta jainko familia asko izaten ziren, eta taldeetan zein hirukoetan eratzen ziren; haien artean bazegoen Osiris, Isis eta Horusek osatzen zutena; azken hau aurreko bien semea zen eta hiruko ezagunena osatu zuten. Jainkoen botozko estatua txikiak eta brontzezkoak ohikoak ziren, normalean gizaki forma edo, bestela, gizaki gorputza eta animalia burua izaten zuten. Anubis hiletaren munduarekin lotuta dagoen jainkoa txakalarekin identifikatzen da eta Thot jainko eskriba Ibisarekin identifikatzen da; biak ziren buruak hildakoaren bihotza pisatzeko zeremonian; zeremonia horri esker, hildakoa Osiris hildakoen munduko jainkoaren aurrean aurkeztu ahal zen. Garrantzi bereziko beste jainko batzuk hauek ziren: Ptah jainko sortzailea, Sobek jainko krokodiloa, Bastet katu jainkosa edo Bes nanoa, etxea eta erditzea babesten zituen zaindaria.

## LA MITOLOGÍA

El politeísmo egipcio incluía una amplísima variedad de divinidades, entre las que destacaba Amón, dios tutelar de la ciudad de Tebas, que fue identificado con el dios solar Ra y se erigió en dios supremo de todo el panteón. Existían diversos mitos de creación y familias de dioses que se constituían en grupos y tríadas, entre las que la conformada por Osiris, Isis, y Horus, hijo de ambos, es la más conocida. En los templos eran habituales las pequeñas estatuas votivas de divinidades en bronce, habitualmente representados con forma humana o con cuerpo humano y cabeza animal. Anubis, dios relacionado con el mundo funerario e identificado con el chacal, y Thot, dios escriba identificado con el ibis, presidían la ceremonia del peso del corazón del difunto que, finalmente, le permitiría presentarse ante Osiris, señor del mundo de los muertos. Otras divinidades de especial relevancia eran el dios creador Ptah, el dios cocodrilo Sobek, la diosa gata Bastet, o Bes el enano, protector del hogar y del parto.



## EPILOGOA

K. a. 332 urtean Alejandro Handiak herrialdea konkistatu zuen eta persiarrak kanporatu eta hiriburu berria izango zen Alexandria hiria fundatu zuen. K. a. 323an hil zen eta Ptolomeok, bere jeneraletako bat, boterea oinordetzan hartuta, Egiptoko Erreinu Ptolemaikarra eratu zuen, zeina K. a. 31 urtera arte luzatu baitzen, urte hartan Octaviano-k, Augusto izenaz ezaguna, Erromako lehen enperadoreak Accioko batailan Marko Antonioren eta Egiptoko azken erregina Kleopatra VII.aren ontziteria gailendu zuen. Ptolomeotarrek tradizio grekoa sartu zuten Niloren herrialdean, eta, aldi berean, faraoien oinordetza kulturala mantendu zuten; sinkretismo hori argi adierazi zen erlijio-praktiketan. Erromatar garaian joera

horri jarraitu zitzaion, nahiz eta faraoien kultura egipziarrak gainbehera geldoa izan zuen, zeina erromatarren Behe Inperioan mailarik gorenera igo baitzen.



## EL EPILOGO

En el año 332 a. C., Alejandro Magno conquistó el país, expulsando a los persas, y fundando la ciudad de Alejandría, que pasó a ser la nueva capital. Tras su muerte en 323 a. C., uno de sus generales, Ptolomeo, heredó el poder, constituyendo el Reino Ptolemaico de Egipto, que se prolongó hasta el año 31 a. C. cuando Octaviano, más conocido como Augusto, primer emperador de Roma, venció en la batalla de Accio a la flota de Marco Antonio y Cleopatra VII, última reina de Egipto. Los Ptolomeos introdujeron en el país del Nilo la tradición griega, manteniendo al mismo tiempo la herencia cultural de los faraones, sincretismo que se manifestó de manera clara en las prácticas religiosas. Durante la época romana se siguió esta tendencia, aunque la cultura egipcia faraónica experimentó una lenta decadencia, que culminó en el Bajo Imperio Romano.



Oiasso Erromatar Museoa  
Museo Romano Oiasso  
Eskeleta, 1 Irun (Gipuzkoa)  
Telf.: 943.63.93.53  
[www.oiasso.com](http://www.oiasso.com)

10:00-14:00 // 16:00-20:00  
Astelehena itxita / Lunes cerrado



Laguntzen du / Colabora

